

Donostian, 2001.eko maiatzaren 25ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana Martija, diruzaina,
B. Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Eguzkitza,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
F. Ondarra
eta J. San Martin, euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia idazkariorde-
-kudeatzailea eta
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea lehen
orduan.

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioa-
ren jauregian bildu da Euskaltzaindia,
2001.eko maiatzaren 25ean, hileroko bat-
zarra egiteko. Bilera goizeko hamarrak
eta laurdenetan hasi da. Ezkerreko zuta-
bean jasorik ageri dira bilduen izenak.
Ezin etorria adierazi dute Xabier Dihar-
cek, Tx. Peillenek, J. M^a Satrustegik eta
I. Sarasolak.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Inork ez du oharrik egin eta, horrenbes-
tez, bere horretan onartu da.

Hizkuntza arauak: Gramatika

1. Oharrik ez da jaso gramatika batzor-
deak prestatutako hiru arauetaz buruz (1.
“Behar izan aditzaren jokabidea aditz ira-
gangaitzekin”; 2) “NahilGura izan adi-
tzen jokabidea aditz iragangaitzekin” eta
3) “Zehargaldera orokorretako aditz-
atzizkia: -(E)N eta -(E)NETZ”).

Hala ere, Andolin Eguzkitza jaunarentzat arau horietan sarrera ulergaitz gerta-
tzen da. Horregatik, lehenbiziko bi arauetan zenbait aldaketa proposatu ditu estilo-
ari dagozkionak. Onartu dira eta aldaketa hauekin eman dira ontzat hiru arau ho-
riek.

2. “Komunztadura aposizioetan” 109. araua berrikustea.

Miren Azkaratek gogorarazi du zertan datzan gakoa: jadanik onartua eta argita-
ratua den arau horretan *n-garrena*-ri buruz esaten dena okertzat eman zuen Ibon Sara-
solak Lekeitioko bileran. Datuak nondik nora dabilztan azaldu du Miren Azkaratek.
Datuon arabera, onartutako testuan ontzat ematen diren *Paulo VI.a Erromako Aita San-
tua* moduko aposizioak berriak dira. Gauzak konpontzeko bide bat arauari zerbait
cranstea izango litzateke eta adibide hori besterik gabe kentzea. Hemen sortu da ezta-
baida araua eta egin beharreko aldaketa nola eman aditzera.

Urrutia jaunak araua aldatzea proposatzen du eta karpitetan lehengoa berriarekin
ordezkatzea.

Andres Ifigok beste zerbait zuzentzea ere eskatzen du: *lizentziatura* hitza ez baitago onartua *Hiztegi Batuan*. Eta hau ere araua aldatzea litzateke.

Arau berritua ematean noiz onartua izan zen eta noiz aldatu den esatea proposatu da. Oihartzabal jaunak, hori egiteaz gainera, oharra ere gehitzea eskatzen du zer aldatu den esanaz. Proposamena izango litzateke arau berritua ematea eta noiz onartua eta noiz aldatua izan den adieraztea. Andres Urrutia ez dago honekin ados: azken bertsioa ematea aski da. Memoria nahi duenak *Euskera* aldizkarian badu aski informazio.

Azkarate andrearen aburuz, jendeari ez zaio interesatzen gauzak zertan aldatu diren jakitea. Harpidedunari emango lioke azalpena baina gainerakoei ez.

Prozedurari buruzko eztabaida luze samarraren ondoren, datuak hurrengo bilera-rako ekartzea onartu da eta orduan hartzea erabakia. Hurrengo bilerarako geratu da, hortaz, kontua. Miren Azkaratek ekarriko du testu berritua onartzeko.

Hizkuntza arauak: Hiztegi Batua

1. *Lautada eta ordoki geografi izenen inguruko gogoeta.*

Eusko Jaurlaritzaren ekimenez geografi hiztegi bat osatzen ari diren lantaldetik Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* jasoak datozen *lautada* eta *ordoki* izenei buruzko gogoeta helarazi zaio Akademiari. Ez dirudi guztiz gogobetekoa denik *Hiztegiko* bereizketa, non *lautada* baino hobetzat ematen baita *ordoki*. *Lau*, *lautada*, *zabaldi*, *zelai* eta abarrez luze mintzatu dira euskaltzainak, baina azkenean hurrengo hilerako utzi da kontua: ordurako proposamen bat ekarriko da Onomastika batzordekoekin hitz egin eta EEBS-ko datuek zer erakusten duten behar bezala pisatu ondoren.

2. *Abonagarri-agertze hitz-zerrrenda.*

Aurreko bileran Kintana jaunaren oharren azterketa ez zen amaitu eta horri ekin dio ondoren Euskaltzaindiak.

Adar sarreran lehenaz gain beste bi adiera jasotzea proposatzen du ohargileak: "aulkien bizkarraldea edo ohearen atzeko aldea", batetik, eta "zapatak janzten laguntzeko tresna", bestetik. Miren Azkaratek bidezko jotzen du oharra eta ontzat eman dute euskaltzainek ere. Beraz, aipatutako bi adiera berri horiek ere erantsiko zaizkio *adar* sarrerari.

Adarbakar: ohargileak ez du egoki ikusten zerrendan jasotzen den bigarren adiera "errinozeroa", alegia. Ontzat eman da oharra, eztabaidaren ondoren. Beraz, sarrera hori honela geratuko da: 1. izond. "adar bakarra duena". 2. iz. "adar bakarreko animalia mitologikoa".

Adarbakoitz-entzat, berriz, "adarbakarra" adiera emango da, besterik gabe.

Adartu: ohargilearen aburuz, ez da *adarkatu*-ren sinonimoa. *Adartu da* ad. dela esango da eta "adarrak atera" adierarekin utziko da.

Adigalkor hitzari leku egin nahi lioke Kintanak "distraído" esateko. Baina erantzun zaio gaizki osatua izateaz gainera ez dela erabilia izan. Oihartzabal jaunak dio erabilia izan ez bada, ez dela sartzeko eskubiderik. Bozkatu da eta hamaika boto izan

dira ez sartzearen aldeko. Sartzearen aldeko 2, eta lau abstentzio. Beraz, hitz hori ez da sartuko

Adikor hitza kendu ala ez bozkatu da ondoren. Kentzearen alde bozkatu dute 12 euskaltzainek. Kontrako lau agertu dira eta abstentzio bat. Kendu egingo da, hortaz.

Adin nagusiko / adin txikiko: lantaldeak lehen itzuliko proposamenari eusten dio: *adindun* eta *adingabe*. Miren Azkaratek Andres Urrutiari eman dio hitza berak arazoa azal dezan. *Adingabe* eta *adindun* onartzeko prest dago Urrutia. Baina egoera adierazterakoan kezka sortzen zaio: *adingabekotasun* hitzaren parean *adinduntasun* sortuko litzateke. Bitxia. Honen ordeztu *adin nagusitasun* edo proposa litekeela uste du, nolabait tranpa egitea bada ere. *Legezko adina* ere hor dago baina ez da zehatza.

Azkenean honako laukotea onartu da: *adindun/adingabe/adingabetasun/adin-nagusitasun*.

Urrutiak, gainera, *adin nagusiko* ere sartu nahi du sinomimotzat *adindun* emanaz. *adin txikiko*-ri "*" zeinua jarriko litzaioke. Hori izan da, azkenean, bozkatu den proposamena. Alde: 9 boto. Kontra: 1. Abstentzioak: 6. Beraz, onartu da.

Ordubietan bilera eten egin da bazkaltzeko. Arratsaldeko lauretan ekin zaio berriro lanari.

Adixkide forma sartzeko proposamena erretiratu egin du egileak berak.

Adjudikatari: ez da sartuko baina bai *adjudikaziodun*.

Afrikari etab. gaikako zerrendak aztertzen direnean erabakiko dira. Bitartean, zintzilik utziko da kontua.

Adoi: ez da sartuko oraingoz, nahiz eta ondo letorkeen. Hor dira, dena dela, *begi on* eta antzekoak ere.

*Adurreta*ko sarrera kendu egingo da zerrendatik. Eta *adur-zapi* sin. *lerde-zapi* emango da, gainera.

Aero irristailu ez sartzea onartu da.

Afektatu: ordainen artean *ukitu* ere gehitzea eskatzen du ohargileak. Onartu da.

Afiliatu: da ala du behar duen eztabaida sortu da. *Da* eta *du* gisa ematea onartu da.

Afinatu/desafinatu hitzak sartzearen aldeko da Kintana jauna. Honela emango da: afinatu Mus. Heg. h. **tonuan jarri, aurrindu**. Eta desafinatu: Heg. h. **tonua galdu, tonutik irten**. *Akordatu* eta *desakordatu* ere modu bertsuan sartuko dira *Ipar*. markarekin eta hobeste zeinua emanaz, goian bezala. Eta *aurrindu* sartu beharko da, bestalde, bere lekuan.

Afrikatu geroko utzi da.

Afrontu/afrintu. Bi sarrera emango dira: **afrontu**: 1. Bizk. "euria eta haizea batera"; 2 * . *Ipar*. e. **afrintu**. Eta **afrintu**: *batez ere Ipar*. "laidoa"

Agabe: besterik gabe, inolako adjektiborik gabe, ematea onartu da.

Honekin amaitutzat eman da Kintana jaunaren oharren eztabaida eta hemen utzi dira hiztegi kontuak ere.

XV. biltzarreko programa.

Patxi Goenagak eman du Bilboko biltzarrerako prestatu den egitasmoaren azalpen laburra: egunak, partehartzaileak, gaiak eta abar. Ondoren Beñat Oihartzabalek eman du Baionakoaren berri.

Eskuartekoak.

1. Wilhelm von Humboldten agiritegi mikrofilmatuaren ale bat eskuratu du Euskaltzaindiak Bizkaiko Diputazioari esker. Hemendik aurrera Azkue Bibliotekan gordeko dira dokumentu horiek. Arana jaunaren hitzetan, Graz-eko Unibertsitatean ba omen dira Humboldten dokumentu gehiago. Horiek ere eskuratu beharko omen lituzke Euskaltzaindiak.

2. Bestalde, Beñat Oihartzabalek jakitera eman duenez, Eusko Ikaskuntzak CD bat atera du lehen euskal grabaketekin. Trebitschen lanekin ere beste bat bidean omen da eta euskal erakunderen batekin argitaratzekotan omen dira.

3. Amaia Okariz, prentsa arduradunaren eskariaren berri ere eman zaie euskaltzainei. Euskaltzain bakoitzaren fitxa osatzea behar-beharrezko ikusten da. Bakoitzari bere *curriculum*-a igortzeko eskatzen zaio.

Eta bilera seiak eta erdietan eman da amaitutzat.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga